


Astekaria




elgoi

EUSKADIKO ESKALADA TXAPELKETARI BURUZKO GEHIGARRI BEREZIA



**Paretean gora
Yosemitearaino**



LARRANAGA autoeskola



Santa Ana II. 74 10 11 - ELGOIBAR



IKASTARO INTENTSIBOAK

Uztailean



■ **HIZKUNTZAK**

- ☛ Ingelesa
- ☛ Frantsesa
- ☛ Alemana

■ **DATAK:** Uztailak 3 - Uztailak 29

■ **ORDUTEGIA:**

- ☛ Goizez
- ☛ 2 ordu egunero
- ☛ 40 ordu


INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:
INDUSTRY LANGUAGE SERVICES
San Roke Auzoa, 1. 20870 ELGOIBAR.
Tel: 74 41 32 Fax: 74 41 53

❖ *Lubia jatetxea*

Berezitasunak : Arraina eta haragia erreta eta bildotsa

- ❖ EZKONTZAK
- ❖ BATAIOAK
- ❖ JAUNARTZEAK
- ❖ DESPEDIDAK
- ❖ EGUNEROKO MENUAK
- ❖ BILERETARAKO MENU BEREZIAK
- ❖ ETAB.

Ondo para San Juan Jaia!



K/ Bainuetxe zumardia, 2- Tel. 74 05 13. **ALTZOLA-ELGOIBAR**

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Hau herri dotorea!

Bozketen ostean, ba al dago udal zinegotzi berriei eta alkate izango denari zenbait aholku emateko gogorik ez duen inor?

Hauteskunde ondorenean denok gogoratzen dugu berriro ere bistaurran daukaguna eta geure buruoi galdetzen: baina nola liteke orain arte inor honetaz konturatu eza? Eta, nola ez dute gure politika-gizonek hau ala beste asmatzen gure bizi kalitatea hobetzeko?

Beharbada herri honetan jaio den bati, betidanik honela ezagutu duelako, ez zaizkio hainbat gauza aldaketa beharrean daudela irudituko; ni, ordea, kanpotik etorritakoa izanik, atrebentziaz agian, baina geure herri hau ahalik eta ondoen ikusi nahian batez ere, zertxobait esatera ausartu natzaizu.

Ez dakit nirekin bat etorriko zaren baina gure txoko hau, Deba bailarako beste zenbait herriren gisa, urbanismo ikuspuntutik begiraturaz gero, ez da puntakoa, alajaina!


Bestalde, antzinako aiton-amonak eta gurasoak, adibidez, euren pobrezian ere, bilobatxo eta seme-alabak ahalik eta dotoreen eta txukunen eramaten ahalegintzen ziren, jaiegunetan zer esanik ez. Gauzak horrela, denok dakigu gaurko egunean ere marketinaren legepean jiratzen duela orok. Horregatik, denak erakargarria izan behar du, hots, itxura edo planta ezin hobekoa, diseinuduna, argia, alaia, “too much-a” eta abar.

Beste era batera esanda, ados egongo zara nirekin, herritarkide, hirigintzarekin ere modu berebean jokatu beharko litzatekeela. Galdetu al diozu inoiz zeure buruari Elgoibar autoz zeharkatzen duen bidaiariak, ikusten duena ikusita, herrian geratzeko tentaziorik izango ote duen, edota bertan erosketa batzuk egiteko, bueltatxo bat emateko, taberna edo terrazetako sonbrilapean kafetxo bat hartzeko eta abar. Nahi duzuna pentsatzeko aske zara baina nik neuk badakit erantzuna. Beraz, alkate jaunari lehenbailehen hiri marketinaren lehen harria jar diezagula eskatuko nioke. Ez litzaioke herriko jendeari batere gaizki irudituko honelako bandoa: “...etxeak pintatu, fatxada, teilatu, leihoak... kopondu nahi dituztenei diru laguntzak eta beharrezko materialak oparituko zaizkie”. Eta era berean: “Debekatuta gelditzen da herriko alde zaharrean etxe modernistak edo futuristak eraikitzea, ondo sartu ezin daitekeen garajerik egitea, lau solairu baino gehiagoko etxerik jasotzea” (herri honetan ortzea ikustea oso zaila baita -lepoa asko okertu behar da argia ikusteko edo nolako eguraldia dagoen jakiteko- hiri barnean bizi garen askorentzat).

Eta guzti hau gutxi balitz legez, mesede galanta egingo litzaieke merkatal zerbitzuei eta langabeziari, besteak beste.

Jon Etxabe

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Gazte batek honako galdera hau egiteko esan digu:

Radioaktiboa al da Mekanikako txmistorratza?

Bertako zuzendariarekin egon gara eta ezetz erantzun digu. Lehengo txmistorratz zaharra kendu eta duela urte bete berria jarri omen zuten. Bere esanetan Elgoibarren dagoen txmistorratz aurrerratuena da Mekanikakoa.



KEXAK

Udal Ongizate sailak kexa hau helerazi digu: "herritarrei basurak kontenedoreen barruan lagatzeko eskaria luzatu nahi diegu. Kontenedoreak ez daude zaborrak euren aldamenean lagatzeko, barrura botatzeko baizik. Kultur Etxearen atzeko aldean eta Plaza Txikian dauden kontenedoreekin sarri pasatzen omen da hori".



TXALOAK

Emakume baserritar batek deitu digu BARRENen 109 zenbakian Eskutitz sailean "DEBEMENen inbertsioa" izenburupean argitaratutako gutuna idatzi zuena txalotzeko. Bertan, esandakoarekin guztiz bat datorrela esan digu.

ESKUTITZAK

Intsumituen bidea guztion lana da

Pasa da hauteskunde eguna. Alderdi politikoez gauza asko esan dute. Tartean intsumisioa aipatu izan da. PNVk, HBk eta EAK intsumisioaren aldeko jarrera azaldu dute. Baita IU alderdiak ere. Hala ere, hauteskunde kanpainan zehar atxilotetak eta epaiketak izan dira. Honek guztiak, bide zuzena aukeratu dugula adierazten du. Dena den, arazoa hor dago; nahiz eta hauteskundeak atzean gelditu, ejerzitua hor dago, derrigorrezko soldaduska eta zerbitzuarekin. Kanpainan alderdiek aipatu bezala, intsumisioa despenalizatu behar bada, guk garbi dugu zein den bidea: desobedientzia zibila. Gaur egun inposatutako legeak aldatu behar dira, ejerzitorik gabeko gizarte baten alde, derrigorrezko soldaduska eta ordezkotza sozialarekin bukatu nahi badugu. Gainera, ez dugu ahaztu behar Madrilgo gobernuak onartu nahi duen kode penal berria. Gure kasuan gauzak ez dira aldatzen: soldaduskari uko egiteagatik kartzela eta O.Z.S.ri uko egiteagatik isunak eta inhabilitazioa.

Gizartearen gehiengoaren babesa baldin badugu, eraberrituko den Udalaren benetako inplikazioa beharrezkoa dela uste dugu. Inplikazioa ez da soilik gutun batzuk igortzea Madrilgo gobernura, inplikazioa gaur egun dauden legeen aurka argi eta garbi azaltzea da, honek ekarriko lituzkeen ondorioei aurre eginaz.

Justizia eta Legea gatazkan badira beti izango da Legearen aurretik Justizia.

Hauteskundeak aipatu ditugunez, ezin dugu utzi aipatu gabe gaur egun intsumituak espetxerazten dituzten alderdien adierazpenak. PP derrigorrezko soldaduska 6 hilabetera pasatzeko aukera aztertzen ari da. PSOEk, berriz, ordezkotza zerbitzua 12 hilabetetik 9ra pasako dela dio. Nahiz eta hauteskunde kanpainan adierazitakoa izan, arrazoia ematen digute intsumisioaren bidea hartu dugunoi. Erreprezio guztiei aurre eginaz lehenago edo beranduago derrigorrezko soldaduska eta ordezkotza zerbitzua desagertu egingo dira, ejerzitorik gabeko gizarte baten aldeko lehen urratsa izango delarik.

Bidea luzea da, guztion lana beharrezkoa da! Ez intsumituena zuzen zuzenean, GUZTIONA.

Denok batera intsumisioa!
Elgoibarko Talde Antimilitarista

KAS eta lazo urdina

KASek lazo urdina daramagunoi, hau da, Aldaiaren ASKATASUNA eskatzen dugunoi, GAL eta torturaztaileekin gaudela esaten digu kalean ipini dituzten kartel batzuetan. KASEko partaideok jakin badakizue, baina berriro esango dizuegu, ezetz eta ezetz.

Guk, GAL eta tortura kasuetan ardura zuzena dutenak gartzelan egon behar dutela uste dugu, eta arduradun politikoei beraien karguak utzi behar dituztela.

Baina, zuek zer? Zeuon buruak engainatzen dituzue. Galdetu al diezue zeuon buruoi zergatik HBk zinegotzi bat galdu duen Elgoibarren?

Zergatik botu abertzale eta ezkertiarra inguratu beharrean, joan egiten zaizuen?

Eta, zergatik inguratzen zaizuen jende apurra, indarkeriazale gazteak diren?

Juanjo Baztarrika Garate

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



Aste honetan sanmigeldarrak dira gure erretratu zaharreko protagonistak. Igandean sanmigeldarren eguna eta ermitaren 150. urterrena ospatuko dute. Bi erretratu hauek **Ignacio Garagarzak** laga dizkigu. Eskuinean duela urte mordo ateratako erretratu dugu, ermitari atera zitzaion lehen argazkia dela esan digu Inak. Bertan agertzen direnak nortzuk diren jakiterik ez dugu izan.



Beheko erretratuak 50 urte inguru izango ditu, hau da, 1945. urtearen bueltan ateratakoa da. Okasiorako dotore-dotore jantzita daudenak San Migelko bentan bizi zirenak dira, Garagarzatarak.

Azaltzen direnen izenak, ezkerretik hasita, tente: **Narciso Etxaniz "Patxo"**, **Maritxu Garagarza**, **Brigida Garagarza (†)**, **Marcelo Iriondo (†)**, **Milagros Ascorbe** eta **Jose Garagarza (†)**.


Eserita: **Karmen Iriondo**, **Agustín Garagarza (†)**, **Maria Olasolo (†)**, eta **Dolores Iriondo**.



MORKAIKO Mendizale Elkarte

osutzen dugun guztiok, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizugu Elgoibarko mendizaletasunaren alde egin duzun guztiagatik. Eta zauden tokian zaudela, ez ahaztu gogoan izango zaitugula.

MORKAIKO M.E.



JUAN SANTIAGO AIZPITARTE

■ Diapositiba emanaldia

Ostiralean, hilak 16, Eskalada Txapelketaren atarian, diapositiba emanaldia izango da Morkaikok antolatuta. Josu Merino eta Aitor Esnaola eskalataile elgoibartarrek burututako espedizio ezberdinetan ateratako dispositibak ikusi ahal izango dira Kultur Etxean gaueko 10etatik aurrera.

■ Sutea Erretxindin

Joan den larunbatean, hilak 8, sutea piztu zen Iberdolak Erretxindi auzoan duen transformadore batean. Gaueko hamarrak aldera izan zen gertaera, Tanborrada hastear zegoenean. Sutearen ondorioz, Erretxindi auzoa argirik gabe geratu zen. Elgoibarko suhiltzaileek jardun zuten itzaltze lanetan eta matxura goizaldeko lauak aldera konpodu zuten.

■ Gurasoen eguna Ikastolan

Ikastolan eta Pilarrean gurasoen eguna ospatuko dute larunbatean, bakoitzak bere aldetik. Egun osoz, gurasoak haur bihurtuko dira, eta gaztetxoak legez, jolasean eta olgetan arituko dira. Kirol-jokoen ostean, lagun arteko bazkaria izango dute. Pilarrean gauera arte luzatuko da jaia eta hilaren 25ean Castro Urdiales-era txangoa egingo dute.

■ San Juan jaiak Altzolan

Altzolatarrek San Juanak ospatuko dituzte hilaren 17tik 25era bitartean. Larunbatean, hilak 17, hasiko dira jaiak bapateko mus txapelketarekin. Igandean, hilak 18, arratsaldeko 7,30etan futbolin lehiaketa izango da eta hilaren 22an, osteguna, arratsaldeko 4etatik aurrera bingoan jokatzeko aukera izango dute zaletu guztiek Zaharren Biltokian. Segidan sardina jana eta Combi orkestaren jarduna izango dira eta 10,30etan "No me chilles que no te veo" filmea emango da.

Sebas Etxaniz aske utzi dute

Sebas Etxeniz Alkorta, 51 urteko preso elgoibartarra aske utzi dute. Nicaraguan 15 urte eman eta gero, 1993. urteko ekainaren 20an estraditatu zuten eta gartzelan sartu. Castelloneko eta Valdemoroko gartzeletan bi urte egin zituen epaiketaren zain eta hil honen 8an Auzitegi Nazionallean egin zioten epaiketan kargurik gabe aske uztea erabaki zuen epaileak. Ostiral honetan, hilak 14, Elgoibarko Gestorek ongiatorria egingo diote arratsaldeko 8etatik aurrera Plaza Handian.




Herri Eskolako haurrek Leintz-Gatzagara irteera egin zuten joan den ostiralean. Ingurunean lantzen dituzten gaien osagarri antolatu zen aipatutako irteera 3., 4. eta 5. mailako ikasleentzat eta helburua Deba ibaiaren iturburu ingurua eta bere ekosistema ezagutzea eta naturaren zenbait gai zuzenean miatzea izan zen. Hori guztia bete- betean lortzeko, monitore bereziak izan zituzten argibideak emateko.

Jose Ignacio Ullacia Echeverria

AROTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA

Santa Klara, 10-1
Tel: 74 05 47

Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 04 68



PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAREN ERANTZUNAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Bi intsumitu elgoibartar gartzelara ditzakete une batetik bestera

Antimiliek asteartean eman zuten prentsaurrekoan adierazi zutenenez, bi gazte hauei epaiketa egin zitzaizen eta 2 urte 4 hilabete eta egun bateko zigorra ezarri zien epaileak. Orain “busca y captura” agindupean daude eta hilabeteko epean Ertzantza joan zaie etxera bila nahiz eta gazteak etxean aurkitu ez. Antimilitaristek prentsaurrekoan azaldu zutenenez, egoera salatu nahi du, “hemendik aurrera gauzak okerrago egingo baitira. Lehen epaiketak izan baziren, orain egun batetik bestera gazte elgoibartarrak gartzelan izan ditzakegu”. 15 intsumitu izan dira epaituak mementuz eta guztiek ez dute epai berdina jaso, “denok gara intsumituak, denok behar dugu epai berdina izan. Ez gara delinkuenteak, horregatik despenalizazioa eskatzen dugu. Ez dezatela inor gartzelaratu edo, bestela, denok atxilo gaitzabela”. Ertzantza ere salatu zuten, “euskal gizartean nabari den intsumisioaren aldeko jarrera ez dutelako errespetatzen” eta, bide batez, “Udalari eta politikoei dei



egin nahi diegu zerbait egin dezaten. Hitz polit asko jaso ditugu beraien aldetik baina hitzak ezezik ekintzak ere ikusi nahi ditugu”. Azaldu zutenenez, hemendik aurrera intsumisioaren alde dagoen jendearekin hitzegin eta horiekin plataforma bat osatu nahi dute, “persona konkretu batzuegana joko dugu, horiek talde bat osa dezaten, intsumisioaren aldeko talde autonomo bat, beraien ekintzak egin ditzaten, gurekin

elkarlanean, helburu berdin bategatik baina bakoitza bere bidetik”. Bukatzeko garbi utzi nahi zuten eurek, “gizarte berri baten alde” borrokatzen dutela, “jarrera baketsu baten alde”. Datorren larunbatean Bilbon egingo den manifestaldirako ere deialdia egin zuten, “Abolizioaren alde, ejerzitoaren aurka” lemapean arratsaldeko 5etan izango da, eta arratsaldeko 3,30etan autobusa aterako da Plaza Handitik.



San Bartolome Ikastolak Osasunkume

Eskola Lehiaketan aurkeztutako hirurehun lanen artetik, hiru sari jaso ditu, hauen lanak hogeit hoberenen artetik geratu baitira. Sarituak 4B, 5B eta 3D mailakoak izan dira eta opari modura Eurodisneyra bidaia irabazi dute gela osoarentzat. Zorionak eta ondo pasa Eurodisneyn!

■ San Juan suak

Udaltzaingoak Erretxindin, Altzolan, Urasandin eta Ermuaranbiden (Ikastola parean). egingo diren sute handiak, bakarra izatea gomendatzen du. Bestetik, hona hemen Udaltzaingoan jasotzeke dauden objektuak: autoko giltzak, urrezko eskumuturrekoak bi, estutxea, bi erloju, kartera bat gilz sortarekin eta diruarekin, haurren jertsea, txandal txaketa, txandala, aterkia, txano bat eta eraztuna.

■ Iparraldera eta Nafarroara irteera

Elgoibarko EAJ/PNV alderdiak Iparraldera eta Nafarroara irteera antolatu du hil honen 25erako. Txangora joan nahi duten afiliatu guztiek izena eman dezakete 74 27 44 zenbakira deituz edota Batzokira zuzenduz.

TRINITATE JAIAK Tanborradaren hotsen ostean...

Kirol eta kultur ekintzetan oparoak izan dira aurtengo Trinitate jaiak. Larunbat goizean automodelismoa eta parapentea ikusteko aukera izan zuten Mintxetara hurbildu zirenak. Albitxurin, berriz, La Union elkarteak antolatuta, ehiza txakurren txapelketa burutu zen eguerdi aldera arte. Arratsaldean, Plaza Handia euskal folkloreak leku izan zen eta gauean, hainbat entsaiu eta buruhausteren ondoren, Tanborradak hartu zituen herriko kaleak. Igandean Eibarko Bandaren kontzertua, buruhandien alardea, haurren parkea eta jubilatuentzako dantzaldia izan ziren nagusi.



Automodelismo txapelketa goizeko 11,30ak eta arratsaldeko 2,30ak bitartean luzatu zen jendetza ugaria urreratu zelarik ikustera. Irabazlea Miguel Segovia bilbotarra izan zen, finalean, 20 minututan 77 bira eman zizkiolarik zirkuituari bere kotxearekin.



Arroako Izarraitz parapente eskolakoak

Karakateko puntatik Mintxetaraino jaisten ikustea benetan ikusgarria izan zen. Lurra hartzeak ikusmin handia sortu zuen Mintxetako ikuslegoaren artean, eta izan zen zelaian lurra hartu beharrean, errekastora erori zenik ere bai.

“Trinitate Saria” ehiza txakurren txapelketako irabazlea eta bigarren sailkatua ditugu argazkian, Gillermo Garate alkategaiaren eta La Unioneko kidearen eskutik saria jasotzen. Oiartzungo Jose Mari Arbelaitz eta honen jabetzako *Gorri* setter ingelesa izan ziren txapeldunak (eskuinean),



beraiek lortu baitzuten epailaren arabera puntuaziorik altuena. Bigarren postuan *Freedom* setter ingeles arrazako txakur arra eta honen jabea Santiago Bernardo zumarragara geratu ziren (bigarrena ezkerretik). Herriarren artean Eduardo Arronaren *Saly* pointer emea izan zen lehena.

gr

DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

**ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN**

**ZALDUA
ITURGINTZA**

**GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK**

Urasandi 26. Tel: 74 05 30



AITOR ZABALA

**Inazio Bereziartua musik-
keskolako ikasleek** euskal
dantza saio bikaina eskaini
zuten Plaza Handian. Elgoi-
barkoak ezezik, Debako dant-
zariak ere parte hartu zuten.
Era guztietako dantzak ikuste-
ko aukera izan zen, eta kolorea
ere ez zen falta izan.

Herriko kaleak jendez
betetzea lortu zuen **Tanborra-
dak**. Ikusmin handia zegoen
aspaldian desagertutako tanbo-
rrada ikusteko, eta itxuraz,
herritarren espektatibak sobe-
ran ase zituzten tanborrei eta
barrikeri kolpe emanez atera

ziren 130 gazte inguruk. Musi-
ka Bandak Diana, Tatiago, Iri-
yarena, Polka eta Donostiako
martxa jo zituen.

**Erraldoi eta buruhan-
dien alardean** dultzaina
estrainekoz jotzen jardun zuen
argazkiko hirukoteak. Jon
Zabala eta Koldo Galdona
dultzainarekin eta Gorka Regil
danbolinarekin ikus ditzakegu.
Herriko Dultzaineroei errele-
burako sasoiak heltzen zaiene-
an, beraiek sortutako taldeak
ez da jarraipenik izateko “kan-
tera” arazorik izango.



okindegia eta gozotegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

KEMEN Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

Edergintza

- Aurrerapegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Masaia
- Sauna
- Solariuma

San Frantzisko, 49 - 1 esk. Tel. 74 43 03

Aintzane Larreategi:

Aintzane ez du ongi gogoratzen zazpi edo zortzi urterekin hasi zen txistua jotzen baina egun, 32 urte dituelarik, musika karrera bukatua dauka txistu adarrean, pianoa

ikasten ari da eta Inazio Bereziartua Musikeskolako txistu irakaslea da. Instrumentu honen iraganaz, orainaz eta geroaz aritu zaigu solasean.

- Orain dela zenbat urte hasi zinen txistua irakasten?

- 18 urte nituenean izan zen. Hasiera batean Txistu Akademian, Haritz Euskal Dantzari Taldearekin batera Elgoibarko Izarraren barne zegoela. Kontserbatorioan bost urte daramatzat lanean.

- Zeintzuk dira Akademiaren eta Kontserbatorioaren arteko desberdintasun handienak?

- Akademian kurtsoak ez zeuden finkaturik eta biribilketa, fandangoa eta arin-arinak jotzen genituen gehienbat. Kontserbatorioan, teknika eta afinazioa lantzeari lehen ez zeukan garrantzia ematen zaio eta zortzi urteko karrera bilakatu da.

- Nola iritsi da txistua kaleko instrumentu izateetik kontserbatorioko ikasgai bilakatzera?

- Hau gauzatzea Piterren (J.I. Ansorena) lana izan da ia osorik. Urteak eman ditu ikerketa lanean, bai teknika aldetik bai beste instrumentuentara hurbiltzen ere. Bere azken disketan argi eta garbi erakusten du orkestrako beste instrumentuekin ez duela inolako arazorik aurkitu. Estatu



“Harrigarriena hiru zulorekin atera daitezkeen nota guztiak da”

osoan dauden flauta guztien artetik aurreratuen izatea lortu du. Piter guztien maisu izan da eta horrela izaten jarraituko duela uste dut, oraingoz behintzat.

- Beraz, zein da txistuarien egungo egoera?

- Beno, lehen txistua ia euskaldun guztiok ikasten genuen instrumentua zen, beharbada aukera gehiegirik ez zegoelako. Jende honek guztiak txistua jotzen dakiela pentsa

dezake baina egungo teknikak desberdintasun handia suposatzen du ezaguerara hori baloratzeko orduan. Txistua, bestalde, asko findu da, soinu gutxiago dauka, hala ere, ez dut uste kalean jotzeari utzi behar zaionik, baina aretoetan beste instrumentuekin batera landu beharra dago. Aurrerantzean, txistuarekin egin beharreko lana bere tokia berraurkitzean topa daiteke.

- Zer pentsatzen duzu

lehiaketei buruz?

- Bistakoa da lehen askoz ere lehiaketa gehiago egiten zela. Aurrera egiteko arrazoietako bat izaten da. Besteak aurretik gelditzen zirela ikusteak hobetzera bultzatzen gintuen Kontserbatorioa sortzera. Baina tira, iaz Gasteizen lehiaketa bat izan genuen eta Olatz Arriola elgoibartarra bosgarren geratu zen. Esperientzia oso polita iruditu zitzaion.

- Txisturako obrarik konposatzea bururatu zaizu inoiz?

- Pentsatu izan dut, bai. Ez rapsodia bat, baina bai biribilketa bat edo... Egitera jarri beharra dago, ordea, eta denbora asko eskatzen du. Udan, beharbada....

- Noiz arte irakasle?

- Ikasleak dauden bitartean, aurrera. Jendea dagoen bitartean jarraituko dut, eta besteak ikastera animatu nahi nituzke. Txistua interpretatzea ez da instrumentua hartu eta edozer gauza jotzea. Teknika asko ikasi eta lan handia egin beharra dago, beste edozein instrumentuekin bezala, gaur egun, asko kostata, maila horretara aurreratu baita.

MIKEL CORNEJO

Sonia Fernandez

Sonia Dantza eskolako



- **Bizitzan puntiletan ala pauso sendoz zabilta?** ▶ Puntiletan, nik uste.
- **Zure bizitzan zeri emango zenioke 180 °ko bira?**
▶ Fuerteagoa izan nahi nuke.
- **Zer estaliko zenuke gasa fin batez?** ▶ Jendeak argaltzeko duen obsesioa, komunikabideek ematen diguten irudi perfektu hori.
- **Zein kolorek isladatzen du zure bizitza?**
▶ Momentu honetan beltzak.
- **Inoiz eman duzun jauzirik handiena?** ▶ Dantza eskola irekitzea.
- **Bakalaoa ala trikitia?** ▶ Bakalaoa.
- **Nacho Duato ala Joaquín Cortés?** ▶ Nacho Duato.
- **Noren aurpegia ikusi nahi zenuke tul baten atzetik?**
▶ Silvester Stallonerena.
- **Bizitzako eskenatokia gustuko al duzu?**
▶ Nahiago dut antzoki batean, teloiaren atzean dagoen eskenatokiko mundu irreal, fantasiar betea.
- **Noren etxean jarriko zenuke mikrofono ezku bat?**
▶ Ez nuke horrelakorik egingo.
- **Goizean goiz zure etxeko leihotik barrura begiratuko bagenu?**
▶ Nere ama eta biok gosaltzen ikusiko gintuzkezen.
- **Zein animaliarekin parekatuko zenuke dantzari bat?**
▶ Zisne batekin.
- **Eta zeure burua?** ▶ Hura ere zisne batekin.
- **Zerk indarberritzen zaitu?**
▶ Dantza egiteak tentsio guztiak deskargatzen dizkit.
- **Noren oinetan ikusiko lirateke barregarri balleteko zapatilak?**
▶ Nere amaren oinetan, adibidez.
- **Goizean ispilura begiratzear zere ikusten duzu?** ▶ Ezer berezirik ez, begizuloak adibidez. Beste egun bat gehiago hasten dela eta kitto.
- **Zure izaeraren alde ona?** ▶ Oso ona naizela.
- **Eta besteengan onartzen ez duzuna?**
▶ Nik esandakoari kontra egitea.
- **Martin's-ak ala kanperak?** ▶ Kanperak.
- **Zerk ateratzen dizkizu koloreak?** ▶ Gaur egun ezerk ere ez.
- **Esan dizuten gauzarik politena?** ▶ Muñeka bat ematen dudala.
- **Gustuko musika?** ▶ Dantza egiteko Karajan-en *Adagio* diska.

BIHAR ALKATE BERRIA

DOINUA:

Mendian gora

Alkate berri-berria,
lehengo eskutan herria,
beste askori bezala baietz
gizendu gerria.
Iragan susmagarria,
hala heldu zait berria,
ez dakit ondo erregek edo
kristok ekarria.

Mendi, etxe, kale, ibai,
zorion bila ere bai,
alkate honek itsua ez bada
badu lana nonnahi.
Baina ez balu egin nahi,
ez balitz deusetako gai,
ahaleginetan dabiltzan hoiek
utz ditzala lasai.



ASIER ETXANIZ

**I
R
A
K
A
S
L
E**
ELKARTEA

ZEZENBIDE

auto-eskola

San Frantzisko 43,
☎ 74 27 20

Eskolarteko jokoak

Eskolarteko jokoen sari banaketa ekitaldia burutu zen joan den sapatuan Mintxetan. Hiru ikastetxeetako haur gehienek hartzen dute parte urtero taldekako hiru kiroltako batean, areto futboleant, saskibaloian edo eta eskubaloian, eta

banakako beste dozena bat kiroltutan. Aurtengo infantiletako eta alebinetako talde irabazleak edo gehienak behintzat, saria jasotzen izan ziren Mintxetan. Beste batzuek ezin izan zuten bertan egon Euskadiko Txapelketa jokatzeko ari baitziren.

ALEBINAK



Ikas Marmokak

Alebinetan, eskubaloian Ikas Marmokak izan dira onenak. Eskubaloian ezezik, saskibaloian ere irabazi dute baina hauen ordezkari Pilar B taldeak jokatu zuen Gipuzkoako Txapelketa. Azken hauek ez ziren saria jasotzera agertu.



Ikas Levis

Nesken atalean, Ikas Levis bi kiroltutan geratu da txapeldun: areto futboleant eta eskubaloian. Herriko txapeldunak ezezik, Gipuzkoako txapeldunak ere badira bi kirol hauetan.



BENJAMIN NESKAK



Esku pilota

Esku pilotako irabazleak dira argazkikoak. Ezkerretik hasita, Eneko Etxeberria eta Haritz Kruzelegi alebinetako txapeldunak eta Markel Bergara eta Igor Arregi, benjaminetan garaile izan direnak. Infantiletan irabazle izan diren Xabier Arrillagak eta Josu Perek ez zuten sari banaketan egoterik izan.



Mendaro B

Mutilen atalean, Mendaro B taldeetik ordezkari bakarria agertu zen saria jasotzera. Mendarotarrak futbol aretoan geratu dira txapeldun.



Malape

Saskibaloian nesketan onenak Malapekoak izan dira. Honez gain, Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten.



BENJAMIN MUTILAK

Maila honetan talde guztientzat banatu zuen Udalak saria. Txapela, karpeta eta kartera. Mutiletan Otsiak, Azeriak, Ikas Ilargi, Ikas Eguzki, Ikas Otsokoak, Ikas Axelkoak, Pilar A eta Pilar B izan dira parte hart duten taldeak.

Neskek mutilen sari berdina jaso zuten, txapelaren kolore ezberdinagatik kexatu zenik egon bazen ere. Pilar A, Ikas Laino, Ikas Txingor, Ikas Trumoi, Ikas Pottokak eta Ikas Txanpan taldeak osatzen duten neskek ditugu argazkian.

INFANTILAK

Ikas Leakers taldearen ordeztu, Mendaro E taldeak jokatu zuen saskibaloiko Gipuzkoako txapelketa. Sari banaketa orduan, argazkiko neska koskorrak jaso zuen gainontzeko talde-dekideentzako oparia.



Mendaro E



Ikas Leakers

Nesken txapelketan, Ikas Leakers-ekoak izan dira onenak bai saskibaloian bai eta eskubaloian ere. Eskubaloian Gipuzkoako Txapelketan final laurdenetan kaleratu zituzten.



Ikas Xerox

Eskubaloian Ikas Xerox taldea Durangon izan zen aapatuan Euskadiko Txapelketan. Azkenean Euskadiko titulua lortu dute eta horrez gain, Alikanten izango den Espainiako eskubaloiko txapelketa jokatu dute. Zortea izan dezatela eta ea txapela etxera ekartzetik baduten!



Ikas Dream Team

Saskibaloian, Ikas Dream Team taldekoak izan dira herriko irabazleak. Gipuzkoako txapelketako final laurdenetako partidua jokatu zuten baina. zoritxarrez, txapelketatik kanpora geratu ziren.



Urtxis

Azkenik, areto futboleko Urtxis taldeko neskek izan dira garaile.



Pilar Inter

Futbol aretoan Pilar Inter taldeko mutilak irabazi dute aurtengo txapelketa.

MOTZAK

Hamazazpi domina lortu dituzte Ibaikoek

Joan den igandean Legazpiko Kiroldegian burutu zen "Legazpia Hiria" txapelketan Ibai Gimnasioko judoek hamazazpi domina eskuratu zituzten. Elgoibartik parte hartu zuten hogeita bi haurren artetik urrezko sei domina, zilarrezko zazpi eta brontzezko lau lortu zituzten. Urrezkoa ondorengo hauentzat izan zen: Egoitz Mora, Maialen Mora, Xabi Gonzalez, Aitor Gabilondo, Javi Muñoz eta Maria Idiakes. Zilarrezkoa eskuratu zuten Ana Estevezek, Miren Mugerzak, Joana Sotok, Esther Idiakesek, Mikel Muñozek, Jon Ander Pascualek eta Aitor Gonzalezek. Unai Fernandez, Mikel Sastre, Ekain Jimenez eta Zuhaitz Martinez hirugarren postuan geratu ziren; beraz, brontzezko domina beraiantzat izan zen.

Elgoibarko Lagun Taldearen VII. Txirindulari Saria

Elgoibarko Lagun Taldeak errejional mailako lasterketa antolatu du igandean, hilak 18, lehen urteko kadeteentzat. Arratsaldeko 5etan hasiko da lasterketa Plaza Handian, 53 kilometro inguruko ibilbidea burutu eta gero, arratsaldeko 6,25 aldera Mintxetara iristeko. Txirindulariak Elgoibartik Mendaro aldera abiatuko dira, Sasiola, Deba, Mutriku, Saturraran eta Deba zeharkatuko dituzte, eta azkenik Mintxetan kokatutako helmugan sartuko dira.

Hamazortzi taldek jokatuko dute Mintxetako I. Futbol txapelketa

Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako Mintxetako I. Futbol Txapelketaren lehen jardunaldia jokatuko da asteburu honetan. Larunbatean, hilak 17, sei partidu jokatuko dira, eta igandean, hilak 18, hiru, Mintxetan guztiak. Hiru talde ezberdin egin dira, A, B eta C taldeak, sei ekipoz osatua bakoitza. Ekipo gehienak herrikoak diren arren, kanpokoak ere badaude. Hiru Debakoak dira eta bat Mendarokoa. Asteburuan izango da lehen jardunaldia, eta partiduak larunbatean, igandetan eta zenbait ostegunetan jokatuko dira, astero 12 bat partidu izango direlarik. Goizez jokatuko dira normalean, ostegunetan izan ezik.

Zortziko taldeak

Txapelketa jokatuko duten taldeak zortzi jokalarik osatzen dituzte. Zelai osoa izan beharrean, erdia bakarrik erabiliko da eta liga moduko txapelketa izango da. Talde

bakoitzeko ekiporik onenak sailkatuko dira uztailearen 15ean izango diren final-erdiko partiduetarako. Hauekin batera hiru taldeetako bigarren talde onenak jokatuko dira final-erdia. Txapelketaren irabazlea, uztailearen 16an jokatuko den finaleko partiduen ostean ezagutuko da.

Lehen jardunaldia (Mintxetan)

Hilak 17

- 10,15: Pedrusko-Tropiko
Chapuzas-Gruas Pana
- 11,15: Xare-Spartak Pitxote
Txirristaka-Chemolino Rojo
- 12,15: Lagun Onak-Ametsa
Patxi-Jack Daniels

Hilak 18

- 10,15: Karkis-Astigarraga
- 11,15: Tongo-Oraiko Cafe
- 12,15: Otro Mas-Lagun Toki



Ekainaren 6an hil zen MARTIN AIZPIRI SAN MARTINen sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Urtero jende gehiago aritzen da Nahaste Borrastean

Arratsaldeko 7etan aterako dira alebinak eta infantilak Kimetz elkarte paretik Nahaste Borraste lasterketa herrikoia ren 11. edizioari hasiera emanez. Ordu erdi beranduago, helduen eta nagusien lasterketan parte hartuko dutenak irtingo dira Plaza Handitik. Iaz 115 bat lagunek korritu zuten Nahaste Borrastean. Aurten zenbaki hori gainditzea espero dute Kimetzekoek.

1988. an Kimetz elkarteak lasterketa bitxi hau berreskuratu zuenetik herritarren partaidetzak gora egin du. Dena den, emakumezkoek luzatu nahi diete antolatzaileek gonbitea, orandik orain, gutxi batzuk baino ez baitira korritzera animatzen.

Ibilbidea

Iazkoaren berdin-berdina da aurten go ibilbidea. 14 urtera bitartekoek, lehendabizi 4,8km egin beharko dituzte bizikletan, Kimetzetik irten, Melitonetik Madala aldera abiatu eta azkenik Plazan, zakuari kolpe egiteko. Zakuaren kilometro erdiko bidea burutuko

dute Nafarroa Plazan bira emanez. Plaza Handira heltzean azken kilometroa saltaka egingo dute.

14 urtetik gorako lasterketa Plazan hasiko da. 634 errepidetik San Antolinera joan, herri barnetik Madala aldera, Ibarrenean bira, Erretxindira igo eta Madalara jaitsi ondoren, Plazan amaituko dituzte bizikletaz egin beharreko 7,2 kilometroak. Zakua bizkar gainean San Bartolome eta Errosario kaleak zeharkatuko dituzte, gizezkoek 25 kilokoa eta emakumezkoek 10ekoa. Azkenik, saltaka herri-buelta emango dute, 1,4 km. Lasterketaren osteko afarian, Kimetzen, indarberritzeko aukera izango dute lasterkariak.

Segurtasun neurriak

Izen-ematea lasterketa hasi baino ordu laurden lehenago itxiko da. Derrigorrezkoa da txirrindularitza lasterketan kaskoa jaztea. Istripuren bat gertatuz gero, korrikalari guztiek aseguru dute. Baila eta zinten bidez ibilbide guztia markatuko da, Udaltzaingoa bidegurutzeak eta gunerik arrisksuenak zainduko ditu eta Gurutze Gorria ere bertan izango da edozein larrialdi erantzuteko. Lasterketaren antolakuntzan Kimetz elkarteko 40 bat lagunek parte hartuko dute, eta Udalaren, herriko denda eta tabernen eta hainbat pertsonaren laguntza jaso dute.



Txirrindulariak Plaza Handiko irteeran Nahaste Borrastea hasteko zain.

TABERNA ERRETEGIA

PACO

BEREZITASUNAKI


- ◆TXITXARROAK
- ◆SAHIESKIAK
- ◆MUXARRAK
- ◆TXULETAK

(943) 74 28 44 ALTZOLA

Kf g

ILEAPAINDEGIA

☎ 74 00 69
San Frantzisko, 40 3 - B



Sanmigeldarren eguna ospatuko da igandean

San Migeleko auzotarrek san migeldarren eguna ospatuko dute igandean, hilak 18. Egun berezia izango da auzotarrentzat, ermita eraiki zenetik 150 urte igaro direla ospatuko baitute. 1845. urtean auzolanean eraiki zuten ermita, Berdeskundeko gurutzean.

Sanmigeldarren eguna hasteko, meza nagusia izango dute igandean. Pello Arrieta historiagileak hitzaldia emango du. Oroigarri bat bistaratuiko da eta Haritzekoek dantzatuko dute. Ordubatean San Migel auzoko II. Banakako Esku Pilota Txapelketaren azken patidua jokatuiko da Murkai-kupe frontoian eta tartean salda banatuiko da. Egurdiko 2,30etan anaiarteko bazkaria izango dute auzotarrek, jai batzordeak prestatuta. Ziarda, Meabe eta Loiola bertsolariak alaituko dute bazkaria eta, ostean, dantzarako aukera



■ ■ Berdeskundeko gurutzea. Ermita Granadako dukeak emandako lurretan eraiki zen.

ere izango da Rekalde anaiekin.

150. urteurrena

Ermita sortu zeneko 150. urteurrena ospatuko dute igandean. Okasiorako hainbat datu bildu ditu jai batzordeak liburuskata. 300 ale argitaratu dira eta auzotarren artean banatu ondoren, hainbat puntutan egongo da esku-ragai.

Ermitaren inguruan

1845eko martxoaren 16an Berdeskunde gurutzean plaza bat egiten hasi

ziren auzotarrak, maiatzaren 26an paraje honetan ermitaren eraikuntzari ekin zioten eta urte horretako azaroaren 2an auzolanean ermita berria kon-sagratu zuten. Fundatzailen artean 38 auzotar zeuden eta batzorde bat eratu zen, zortzi lagunekoa. Lurra lortzeko gestioa, ermita eraikitzeko baime-naren gestioa etab. izan ziren batzordearen zeregi-nak. Nikolas Alkorta mai-sua izan zen gestioen buru eta 1845eko urriaren 20an,

San Migelen irudia parrokiatik ermitara eramatea lortu zuen. Auzoko bigarren eta hirugarren zaind-ariak San Antonio eta San Isidro dira hurrenez hurren, eta gaur egun ermitan daude irudiak.

Ermitaren azken berrikuntza 1992an egin zen, auzolanean. Gaur egun oraindik ere, maiordomoaren ohiturak bizirik dirau, eta ermitaren ardu-radun izatea da bere egin-kizuna.

ZELETA Barazkiak



*Egun berean ortutik mahaira
eramanda bertutako kalitatea.*

ZELETA BASERRIA ☎ 74 30 22
San Migel auzoa - ELGOIBAR



XABIER

ILEAPAINDEGIA

*Eskatu
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

Salerosketak

FORD FIESTA SS-N bat saltzen dut. Egoera onean.
☎ **58 40 01** (Koldo)
gaueko 9etatik aurrera

INPRESORA BAT saltzen dut. Zuri beltzean. Ia berria.
☎ **74 20 95**

Atxuri baserrian "COLIE" ARRAZAKO TXAKURKUMEAk dazkagu salgai.
☎ **15 04 41**

1m x 0,70mko teknigrafoa duen DELINEAZIORAKO MAHAI BAT saltzen dut. Prezio interesgarria.
☎ **74 22 29**

Bi oheko (1,80m) LOGELA "PUENTE" BAT saltzen dut.
☎ **74 28 29**
1,30etatik 2,30etara edo gauez

ERREPIDEKO BIZIKLETA BAT salduko nuke. Egoera onean dago.
☎ **74 28 56 Gaizka**
Gauzez deitu

CD ROM IRAKURLEA saltzen dut. Estreinatua gabe. SCSI. Hiru abiadura. CD arruntak ere irakurtzen ditu.
☎ **74 15 69**

Etxebizitzak

Abuztuaren 2. hamabostaldia Ezkarai edo inguruetan etxe bat alokatu nahi nuke.
☎ **19 27 96 (Elena)** Iluntzean

ETXE HAUNDI bat alokatzen da. Amueblatua
☎ **74 04 75**

ATIKO polit bat daukat ALOKATZEKO.
☎ **74 23 67 (gauzez)**

SANTA POLAN bungalow bat daukat ALOKATZEKO. Hondartzako lehen ilaran. Ekaina, uztailko lehen hamabostaldia eta iraila.
☎ **74 27 02**

Etxe bat SALTZEN dut ZARAUTZEN Amueblatua.
☎ **78 19 50**

Pisu bat ALOKATZEN da uztaile eta abuztuaren DEBAN.
☎ **74 28 24**

Etxe haundi bat ALOKATZEN da DEBAN, uztaile eta abuztuaren. Alamedan.
☎ **19 22 37 Idoia**

Etxe bat ALOKATUKO nuke. Amueblatua gabe. Ez du inporta buhardilla bat izatea. Duxa batekin.
☎ **(94) 616 65 03 Maria Luisa**

Bestelakoak

FRANTSESEKO KLASEAK ematen ditugu.
☎ **74 04 59** (13,00-14,30 eta gauez 20,00etatik aurrera)

Aurreko astean hilak 3 San Frantzisko kaleko taberna batean urrezko eskumuturreko bat galdu nuen.
☎ **12 14 67 Montse**

Agurrak

Ekainaren 14an 7 urte bete zituen Kimetzentzat MILA KILO ZORION!, bere gurasoen partez.

Josune! 22 urte behin bakarrik egingo dituzu. Zorionak eta ospatu gehien desio duzun modura.
Elgoibarko Izarra eta BARREN

Garajeak

GARAJE BAT dut saltzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.
☎ **74 39 19**

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifizioan. 15m² eta bi planta.
☎ **74 25 01 / 10 82 43**

Lana

NESKA EUSKALDUN BAT BEHAR dugu bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko.
☎ **74 28 75**

Gizonezko bat behar da kristalak garbitzeko.
☎ **74 26 77** Setatik aurrera deitu "Kalamua Coop."

Emakume euskaldunak etxeko eta sukaldeko LANAK EDO NAGUSIAK ZAINDUKO lituzke. 17 urteko esperientzia eta kotxeko karneta.
☎ **74 23 30 (Eusebi)**

TITULUDUN ERIZAIN EUSKALDUNA, etxeetara erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.
☎ **74 02 33 Marta Diego Arrieta (Erizain diplomatua)**

Pertsona nagusi edo gazte elbarrituak ZAINTEKO, etxeko lanak eta abar EGITEKO prest nago. Esperientzia daukat.
☎ **(94) 616 65 03 Maria Luisa**



**JUAN SANTIAGO
AIZPITARTE LETE**

*-Goian bego-
Elgoibarren hil zen
ekainaren 10ean, 72urte zituela*

*Zuk utzitako hutsunea
zuk emandako une alaien
oroitzapenekin betetzen
saiatuko gara beti.*

Gogoan zaitugu



16 OSTIRALA

17,00 PATIN FESTA

✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

19,30 ORIO ETA ELGOIBARKO MUSIKESKOLEN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

21,00 BERTSO AFARIA

Unai Iturriaga eta Igor Elorzarekin.
✓ Kimetz elkartearen

22,00 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Josu Merino eta Aitor Esnaola
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

22,15 ZINEA

"Dos tontos muy tontos"

17 LARUNBATA

9,00-16,00 EUSKADIKO ESKALADA TXAPELKETA

Kanporaketa eta Final-erdiak
✓ Kiroldagiko rodomoan
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

9,00 GURASOEN EGUNA PILARREN

10,30 GURASOEN EGUNA IKASTOLAN

22,15 ZINEA

"Dos tontos muy tontos"

18 IGANDEA

16,00-19,00-20,00 EUSKADIKO ESKALADA TXAPELKETA

Finalak, abiadura froga eta sari banaketa
✓ Kiroldagiko rodomoan

17,00 ELGOIBARKO LAGUN TALDEAREN VII TXIRRINDULARI SARIA

Lehen urteko kadeteak
✓ Irteera Plaza Handitik
Antolatzailea: Lagun Taldea

19,30-22,15 ZINEA

"Dos tontos muy tontos"

19 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Dos tontos muy tontos"

20 ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"Farinelli"
(Ikuslearen eguna)

21 ASTEAZKENA

19,00 NAHASTE BORRASTE

✓ Plaza Handian

15,15 ANTZERKIA

Mogel Ikastolako "Zirkoa"
✓ Herriko Antzokian

San Juanak Altzolan

17 larunbata

16,00 Bapateko mus txapelketa
Zubia erretegin

18 igandea

19,30 Futbolin txapelketa

22 osteguna

16,00 Bingoa
Zaharren Biltokian
17,00 Sardina jana trikitilariekin
eta COMBI orkestarekin
22,30 Aire libreko zinea

San migeldarren eguna

Ekainak 18, igandea

11,00 Meza nagusia
Ondoren, ermitaren 150. urteurrena dela eta Pello Arrietaren hitzaldia eta Pello Arrietaren bistaratzea eta Haritz Dantzari Taldearekin aureskua
13,00 II. Banakako Esku Pilota partidua
Murkaikupe frontoian
14,30 Anaiarteko bazkaria bertsolariekin
Ondoren Rekalde anaiekin erromeria

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
17, larunbata:	Bidasolo	Escala
18, igandea:	Bidasolo	Escala
19, astelehena:	Yudego	Yudego
20, asteartea:	Yudego	Yudego
21, asteazkena:	Yudego	Yudego
22, osteguna:	Yudego	Yudego
23, ostirala:	Ormazabal	Ormazabal

FARMAZIEN HELBIDEAK:

Escala: Rekalde 1, Soraluze
Tel. 75 16 38

OKINDEGIA:

18, igandea: IDARRAGA/EIZAGIRRE

ZINEA

"Dos tontos muy tontos"

Zuzendaria: Peter Farrelly
Antzezleak: Jim Carrey, Jeff Daniels, Lauren Holly.

Txisteak, umorezko sekuentziak, aktoreen keinu arraroak... eta antzerako tonto usainek osatzen dute pelikula. Bi ergel, zein baino zein ergelagoak, dira protagonistak. Ez dute munduan gertatzen dena ulertzeko gaitasunik eta biek batera inora ez daraman bidetik egingo dute aurrera.

Farinelli

Zuzendaria: Gerard Corbiau
Antzezleak: Stefano Dionisi, Enrico Lo Verso, Caroline Cellier, Joren Krabbe, Omero Antonutti.

XVIII. mendeko musika munduko pertsonaia legendarioa izan zen. Ahots liluragarria zuen, emoziorik sakon eta bizienak sortarazteko gai zen kantatzen zuenean. Gaur egungo Maria Callas-en parekoa edo, pertsonaia handiek duten erakargarritasuna zuen Farinellik. "Castratti" izenekoen mundu misteriotsua, Broschi anaian arteko harreman ambiguoak eta Haendel musikariarekin istilukak azaltzen ditu pelikulak.

**BEGIRALE
TITULUDUNEKIN**

Udaldian 95!

**Jolasak
antzerkia
eskulanak
irteerak
eta
sorpresa pilo
bat!!**

OHOKO 1-2-3 MAILAK

**Uztailaren 3tik 14ra
(astelehenerik ostiralera)**

Goizez: 9,30-12,30

Prezioa: 1.500 pta.

OHOKO 4. eta 5. MAILAK

Uztailaren 10etik 21era

Goizez: 9,30-12,30

Prezioa: 1.500 pta.

ESKOLAURREA

1-2-3 mailak

Uztailaren 3tik 14ra

Goizez: 10,00-12,00

Prezioa: 1.500 pta.

IZENA EMATEKO ETA INFORMAZIO GEHIAGO:

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte. Ubitarte 4, behe. Tel. 74 16 26

Izena emateko epea: Ekainaren 19tik 23ra.

ANTOLATZAILEA:
Elgoibarko Izarra K.E.

LAGUNTZAILEAK:
Elgoibarko Udala
Foru Aldundia



Alvarez Balzola S.L.

ESKABAZIOAK

MANU ALVAREZ

- Zenbat urte lan honetan?
- Asko, hamalau urterekin hasi nintzen berrogeita hamabost dauzkat nik eta Elgoibarren hegeita hamalau daramatzat guztira.
- Arriskutsua al da zure lana?
- Arriskutsua al da beraz, gogor bari ere bai.
- Zenbat pertsonak osatzen duzue lantaldeak?
- Lauk, biltzaileak, nasa semeak eta nik.
- Zenbat makina dituzue?
- Neurri ezberdinetako hiruro eskabaziora.
- Ahoz ez duzun lan gogor bari?
- Leke eta parkean zegoen Muñikatarren tailerra.



San Pedro Auzoa, 42
20870 Elgoibar
GIPUZKOA
Tel. 58 40 11
Mobila: 908 17 93 58



**Grabitate legearekin
lehia bizian**

IRIS SPORT

ESKALADARAKO ETA MENDIRAKO MATERIALEAN EUSKAL HERRIKO AUKERARIK ZABALENA

- **FIVE TEN**
- **L'SPORTIVA**
- **BLACK DIAMOND**
- **WILD COUNTRY**
- **ROCK EXOTICA**
- **BERGHAUS ...**

**Bilbon zabaldu berri dugun denda
dela eta, hilabete honetan
BEHERAPEN BEREZIAK**

K/ Abatxolo, 25 (atzealdean)
PORTUGALETE (Bizkaia)
Tel.-Faxa: (94) 472 14 48

K/ Barrankalea, 34
DURANGO (Bizkaia)
TEL. (94) 620 29 13

K/ Alda-Recalde, 45
BILBO (Bizkaia)
Tel. (94) 421 05 67

DRU

ZABALDU BERRIA !

*Zatorz!
Behar duzun gustian
lagunduko ditugu.*

Mendia, eskalada, espeleologia, kainoiak, liburuak, mapak, ...

FEDERATUAK %10eko BEHERAPENA

Isasi 23, 20600 EIBAR (Gipuzkoa) Tfnoa. 10 14 12

Ez zaitzala eguzkiak itsutu

Mendirako eta eguzkitarako
betaurrekoetan
aukerarik zabalena

GAZTE TXARTELAREKIN
%10eko beherapena

MORKAIKO M.E.eko bazkideak
%10eko beherapena

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

San Frantzisko, 21 - ELGOIBAR - ☎ 74 03 59

Kalitate handiko txapelketa izatea espero du Euskadiko Mendi Federazioak

Euskadiko Txapelketak duen garrantzia kontuan hartuta, merezi duen tratamendua eman nahi izan dio aurten Euskal Mendizaleen Federazioak. Gero eta maila handiagoko eskalatazaileak ditugu, bai gizonezkoetan zein emakumezkoetan. Izenik eman gabe, laguntza eta errekonozimendua zor diegu, beraiek baitira Euskal Herriari eta aldi berean Federazioari izen ona ematen diotenak. Federazioko lehendakariatzatik eskertu beharrekoa da.

Morkaiko M. E.ari eta Udalarari txapelketa antolatzeko egiten ari diren esfortzuagatik eskerrik beroenak. Programa ganoraz burutzeak ordu asko eta dedikazio handia eskatzen du eta zuek badakizue zergatik utzi dugun zuen esku antolakuntzaren ardura; daukazuen guztia eta are gehiago ematen dakizuelako.

Herriko BARREN astekariari Eskalada Txapelketaren inguruan azaldu duen interesa eskertu nahi nioke. Federaziotik jakin badakigu zer-nolako esfortzua egiten diharduten, arlo ekonomikoan ezezik, lan arloan ere bai, eskaladak merezi duen tratamendu zabala eta sakona emateko.

Azkenik, Federazioaren izenean, amets hau egia bihurtzen lagundu duzuen pertsona eta erakunde guztioi, eskerrak bihotzez; elkarlan honen bidez, euskal mendizaleok familia handi bat osatzen dugula erakutsi baitugu.

B e s a r k a d a handi bat eta zor-terik onena opa dizuet guztioi .

Pako Iriondo

Euskal Mendi Federazioko Lehendakaria



▲ Iaz Elgoibarren burutu zen txapelketaren sari banaketa.

Pako Iriondo Euskal Mendi Federazioaren lehendakariaren esanetan "esfortzu handia egin du aurten Federazioak, Euskadiko eskalatazaileek merezi duten moduko txapelketa antolatzeko". Froga bakarra izatea funtsezkoa izan da horrelako txapelketa bati dagokion oihartzuna eta indarra emateko. Asteazkenean Elgoibarko Udaletxean izan zen aurkezpenean, Morkaiko antolatzaileak eta Patxi Arozena eskalatazaile ezaguna bat etorri ziren Pakok esandakoarekin. "Eskalada deportiboan ari garenontzat oso garrantzitsua da aurtengo Euskadiko Txapelketa", adierazi zuen Euskadiko eta Espainiako txapeldun izan den eskalatazaile donostiarrak. "Estatuko lehen bost eskalatazaile onenen artetik, lau Euskal Herrikoak ditugu, hortaz, kalitatea ziurtatua dago".

Era guztietako frogak ikusteko aukera izango da txapelketan. Batetik, eskalatazaileek aurrez ikusi gabeko bideak eskalatu dituzte, eta bestetik, "bide landuak" deitzen direnak igoko dituzte. Azken hauetan, igande goizean ordu erdiz bidea aztertzeko aukera

izango dute eta arratsaldean benetako igoardia izango da. Abiadura frogak ikusgarritasun puntua jarriko du.

Rokodromoa handitu eta berritu egin dute okasiorako. Kuboaren ezkerreko horma berria da eta sabaian bi plaka jarri dituzte. Txapelketaren ostean horma berria bere horretan lagako dute eta sabaiko plaka bat ere bai. Berrikuntza hauek rokodromoak tekniki maila egokia izateko egin dira.

■ ■ Egitaraua ■ ■

LARUNBATA, 17

09:00 Izen-ematea

09:00 Irteera ordena ezartzeko zozketa

10:30 Kanporaketak

Ikusi gabeko lehen bidea

16:00 Final-erdiak

Ikusi gabeko bigarren bidea

IGANDEA, 18

09:00 Landutako bidearen entseia

16:00 Finala

Landutako bidea

19:00 Abiadura froga

20:00 Sari banaketa

elgoi**BARREN** • Nafarroa enparantza 2 • ELGOIBAR • ☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA: Elgoibarko Izarra. **LAGUNTZAILEA:** Elgoibarko Udala. **ZUZENDARIA:** Ainhoa Lodoso. **ERREDAKZIO AHOULKARITZA:** Andres Alberdi, Izaskun Elizburu. **KAZETARIAK:** Ainhoa Lodoso, Josone Osoro. **MAKETATZAILEA:** Maite Rementería. **PUBLIZITATEA:** Nekane Etxaniz. **ADMINISTRATZIOA:** Josune Fernandez, M. Angeles Ortuoste. **KOLABORATZAILEAK:** Abel Irizar, Morkaiko Mendizale Elkarte, Euskal Mendi Federakuntza, Udal Kiroi Zerbitzua. **BANAKETIA ARDURADUNA:** Imanol Larrañaga. **INPRIMATEGIA:** Gertu koop. E. (Zubillaga Oñati). **TIRADA:** 4.500 ale. **LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92. **ISSN:** 1133-021X
elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ale honek erakunde hauen babes du:



puntakoenak

PATXI AROZENA

30 urte

Altuera: 1,75

Pisua: 64 kilo

Lorpenak: Hiru

aldiz Espainiako txapeldun eta bi aldiz txapeldunorde. Bi aldiz Munduko kopan 9. geratu da eta 2. eta 3. postuak lortu ditu nazioarteko txapelketetan. Landutako eskaladan 8c egin izan du eta bistakoan 8a+.



RIKARDO OTEGI

27 urte

Altuera: 1,78

Pisua: 63 kilo

Lorpenak: Espai-

niako Txapelketan 10. postua lortu izan du eta Euskadiko 3. postua ere bai. Mailari dagokionean, 8a lehen begibistako bidean egin du, eta 8b+ landutako bidean.



GOTZON GARDEAZABAL

27 urte

Altuera: 1,78

Pisua: 71 kilo

Lorpenak: Iaz

Espainiako Txapelketan laugarren izan zen eta Elgoibarren ere irabazle. Bi aldiz Euskadiko Txapeldun eta graduari dagokionean 8b-ko maila landua eta 8b+ lehen begibistan.



IKER ARROITAJAUREGI

18 urte

Altuera: 1,75

Pisua: 65 kilo

Lorpenak: 8b+ landutakoan eta 8a lehen begibistan.

INAKI MARKO

23 urte

Altuera: 1,67

Pisua: 58 kilo

Lorpenak: Espainiako 10. postua lortu izan du, iaz Euskadiko bigarren geratu zen Bergaran izandako frogan. Graduari dagokionean, begibistakoan 8a egin izan du eta landutakoan 8b+.

1994ko EUSKADIKO ESKALADAKO TXAPELDUNA

DAVID Carretero Perez

◆ **Zer da eskalada zuretzat?** Bizimodu jakin batera eraman nauen kirola.

◆ **Afizioa ala bizioa da eskalada?** Bizioa.

◆ **Zein da kirolik gogorrena?** Triathloia, ironman-a.

◆ **Eskalatzaileok, "kolgatuta" al zaudete?** Ez, mutiko guztiz normala naizela uste dut.

◆ **Egin duzun "biarik" gogorrena?** "Corona", 8b, Katalunian.

◆ **Eta zailena?** "El mercader de Venecia", 7c+ begibistakoa, Araotzen.

◆ **Bizitza bera ez al da nahiko konpetizio?** Niretzat bizitza ez da lehia. Lehiarako txapelketak daude eta niri izugarri gustatzen zaizkit txapelketak.

◆ **"Batzuk izena eta besteak izana..." ados?** Ez, kirolean gogor eta sendo egon ezean, ez dago ezaguna izaterik.

◆ **Nola definituko zenuke zeure burua?** Mutil lasaia naiz, entrenatzea atsegin dut eta neskak ere bai.

◆ **Zer oihukatuko zenuke tontor batetik?** Oraingoz ez dut tontoretara igotzeko asmorik...

◆ **Oskorri ala Rolling Stones?** Rolling Stones.

◆ **Araotz ala Riglos?** Araotz.

◆ **Armiarma ala arranoa?** Arranoa.

◆ **Rokodromoa ala haitza?** Txapelketetarako rokodromoan entrenatzen dut eta gogoko dut baina haitzean eskalatzea are gogokoagoa.

◆ **Zure bizitzako ametsa?** Mendian etxea edukitzea eta norbaitekin konpartitzea.

◆ **Demokrazian sinesten al duzu?** Bai, baina ez dut berau ordezkatzeko dutenengan sinesten.

◆ **Bidali SOS mezua Euskal Herriari:** Sokorrooooo!

◆ **Anekdotarik?** Iaz Ameriketara egin nuen bidaia eta bidaia osoan "bomba" pasatu nuen.

FITXA PERTSONALA

- **Bizilekua:** Donostia
- **Adina:** 18
- **Altuera:** 1,70
- **Pisua:** 56-57
- **Maila edo gradua:** 8a
- **Kualitatetik onena:** Kontzentrazioa
- **Txarrena:** Indar purua
- **Maniarik?** Pastel bat erosten dudanean ez zait gustatzen inork haginkadarik ematea.
- **Sponsorrak:** Boreal, Petzl, Beal



FERNANDO MARTINEZ

23 urte

Altuera: 1,67

Pisua: 57 kilo

Lorpenak:

Landutakoan, 8b+eko lau bide egin ditu eta lehen begibistan 8a. Iaz laugarren geratu zen Gasteizen burutu zen Espainiako Txapelketako froga batean.



ANE HERNANI

29 urte

Altuera: 1,65

Pisua: 59 kilo

Lorpenak:

Euskadiko Txapelketetan bigarren eta hirugarren postuak lortu izan ditu. Gradua: 7a+ landutakoan eta 7b+ lehen begibistan.

JOSUNE

Bereziartu Urruzola

◆ “Txapela buruan eta ibili munduan...”

noiz arte txapeldun? Irabaztea baino zailagoa da txapela mantentzea. Asko dibertitzen naiz entrenatzen, dena den, aspertzen naizenean txapela armarioan gordeko dut.

◆ **Zer bilatzen duzu eskaladan?** Plazerra eta dibertsioa.

◆ **Norekin eskalatuko zenuke gustura?**

Lagunekin eskalatzen dut gustura. Ez daukat idolorik.

◆ **Eta norekin inoiz ere ez?** Nahiko soziailea naizela uste dut.

◆ **Zure txikitako idoloa?** Txikitan “indioak eta bakeroak”. Baina orain ez naiz batere idolozalea.

◆ **Zein portzentaiatan da garrantzitsua fisikoa eta psikikoa?** Fisikoki bi eskalatzaileen arteko maila antzerakoa denean, psikikoa funtsezkoa da.

◆ **Zein izen jarriko zenioke bia bati?** “Hanky Panky”.

◆ **Fama, haizeak al darama?** Askotan bai. Badirudi merituak eta entrenamenduetan sufritutakoak errekonozitzeko derrigor irabazi egin behar dela. Lehenengo hamarren artean egoteak ez du ezer ere suposatzen.

◆ **Zer irekiko zenuke gustura, bia bat ala gaztetxe bat?** Gehiago motibatzen nau bia bat irekitzeak.

◆ **“Spit”a ala “friend”a?** Ez dut sekula friend bat erabili. Ez zait gehiegi gustatzen eskalada alpinoa. Neurea eskalada deportiboa da.

◆ **Potentzia ala adherentzia?** Potentzia, kontinuitatea eta indar erresistentzia ditut gogokoenak. Baina hankak teknikoki ondo erabiltzeak energia aurrezteak suposatzen du.

◆ **Grabitate legea ezabatuz gero?** Eskaladak ez luke graziaz edukiko!

◆ **Afizioa ofizio bihurtuko al zenuke?** Bai, noski. Oso gustura, baina oraingoz sokak, arnesa eta expressak erosteko bakarrik ematen dit.

■ FITXA PERTSONALA ■

- **Bizilekua:** Beasain
- **Adina:** 23 urte
- **Altuera:** 1,74
- **Pisua:** 57
- **Maila edo gradua:** 8a+ landua eta 7b+ begibistakoa
- **Kualitaterik onena:** Indarra
- **Txarrena:** Teknika gutxi
- **Maniarik?** Ez.
- **Sponsorrak:** Petzl, Beal, Aralar Kirolak



BEHERAPENETAN

Eskaladako materialean PREZIO BEREZIAK

Katu hankak, sokak,...
ASSOLO PLASTIKOZKO BOTAK!

Laskorain, 7 • Tel: 65 49 16
20400 TOLOSA

Marino Tabuyo, 6 • Tel: 32 15 94
20013 DONOSTI



Non eskala daiteke gure inguruan?

Artikulu honetan Euskal Herrian eskalatzeko dauden zenbait tokiren izenak, datuak eta beste argibide batzuen berri emango dugu. Eskalada eskolak daude bertan. Gehienak ezagunak izango dira eskalataile askorentzat, eta ziur beste asko aipatu gabe geratuko direna. Beste eskola batzuen izenak ematekotan, Santa Barbara, Ogoño, Illunbe, Zazpi Iturri... aipa daitezke. Elgoibarren ere rokodromoaz aparte, Karkizanoko urtegian boulder egin daiteke. Hona hemen oraingoa bildu ditugunak:

AZKOITIKO HARROBIA


Nola heldu: Azkoitian herri barruan sartu eta Errebala kalean zehar, Kanposantuko gurutzebidea ezkerretara lagata, komentua eta iturri bat dagoen lekuan ezkerretara hartu eta Santa Klara bailaran gora egin. Pare bat kilometrora, azkeneko baserrian, Goi-koetxe izenekoan, autoa utzi eta beste 20 minutuko oinezko ibilaldi-txoa eginez heltzen da Izarraitz azpian dagoen harrobira.

- **HAITZ MOTA:** Kareharria.
- **PARETAREN GEHIENEZKO LUZERA:** 50 metro.
- **BIA MOTAK:** Zailak eta errazak, denetik dago.
- **BIA KOPURUA:** 30-35 bat, gutxi gora behera.

ATXARTE (ABADINO)

Durangotik abiatuta, Elorrion doan errepidetik, Abadiñora heltzean eskuin aldera dagoen errepide bat hartu Mendiolarantz. Errepidean aurrera, Untzilatz eta Aitz-Txiki aldamenetara ikusten dira eta errepidea amai-tzen den tokian aparkaleku bat dago. Hemendik abiatu daiteke sektore ezberdinetarantz. Gertuen daudenak oinez 10 minutura daude, "Lehen Espoloia" adibidez, eta urrutien dauden sektoreetara 25 minutuz pasearan irits daiteke, hala nola, "La Puerta" sektorera.

- **HAITZ MOTA:** Kareharria.
- **PARETEN GEHIENEZKO LUZERA:** 450 metro.
- **SEKTOREAK:** Aurrekoatxa, La Puerta, Lehen Espoloia, Labargorri, Urrestei, Hirugarren Espoloia, La Proa eta Intxauratxa.
- **BIA MOTAK:** Hasi berrientzat, maila apur bat dutenentzat eta maila handiko eskaltzaileentzat ere bai. Zailtasun aldetik, oso errazetatik oso zailetaraino bitarteko guztiak daude, 1etik 8ra bitartean.
- **BIA KOPURUA:** 175etik gora.



"Delirios de placer" (7a+) Urrestein.
Atzean Aitz Txiki eta Alluitz
mendiak ikusten dira.



ARAOTZ (ONATI)

Nola heldu: Oñatitik Arantzazuko bidean gora, pare bat kilometrora, eskuinera bidegurutze bat dago Araotzera joateko. Handik behera, kilometro t´erdira gutxi gora behera, zubia iragan eta gero, hormekin topo egiten da.

- **HAITZ MOTA:** Kareharria.
- **PARETEN GEHIENEZKO LUZERA:** 50 metro
- **SEKTOREAK:** Seriedad, Antosiña, Goikua, San Elias, Puenting, Doluhaitz eta Korea.
- **BIA MOTAK:** Denetarik dago. Zailenak 8b+ eta 8b/c gradukoak. 6. gradutik gorakoak dira ia denak.
- **BIA KOPURUA:** 100etik gora

Seriedad-eko "El flautista de Hamelin" (8a)

San Elias-eko haitzuloa eta baseliza

EGINO (ARABA)

Nola heldu: Gazteizetik Altsasura N-1etik, Ilarduia herrira heltzean, gasolindegi baten ondoan desbiazioa hartu. Leze koba da lehen erreferentzia. Eginorako errepidea hartuta, "La Leze" jartzen duen bideskatik joan.

- **HAITZ MOTA:** Kareharria.
- **PARETEN GEHIENEZKO LUZERA:** 90 metro
- **SEKTOREAK:** Lezeko paretak, Asubiaga, La Plazako paretak, Monolitos, Gran Peña, La Paloma eta El Azor.
- **BIA MOTAK:** Hasten ari direnentzat Lezeko paretak daude, eta zailena 8a+ gradukoa da, Zortziko izenekoa.
- **BIA KOPURUA:** 160 inguru.

"Alien"eko bigarren zatia (6c, A0)



Eginoko hormak.



ETXAURI (NAFARROA)

Nola heldu: Etxauri herritik pare bat kilometrora dago Etxauriko eskalada eskola. Iruñetik Lizarrara errepidean Salinas de Orotik gora, bi aparkaleku daude, bata ezkerretara, Maño deitzen den zonaren azpian, eta bestea, zertxobait aurrerago eskuinera, Torreón zonaren azpian kokatua. Aparkaleku batetik edo bestetik abiatuta, zona ezberdinetara heltzen da. Mendatetik gora, bihurtune batera iristen da eta han haitz multzo txiki bat aurki daiteke.

- **HAITZ MOTA:** Kareharria.
- **PARETEN GEHIENEZKO LUZERA:** 180 metro inguru
- **SEKTOREAK:** Gradak, La Escondida, Pirulo, Callejon de las Trampas, Kiriako, El Canteiro, Aguja del Recuerdo, Africana, Totem, Refugio del Gedna, Marcos Feliu, Huso, Rueda, El Balcon, Mogollon, Pared de la Sierra, Aguja del Ojo, Pared del Boj, Piedra del Camino, La Torta, Peña Granada, El Cervino, La Mano, Pared de los Maños, El Pie, El Dedo...
- **BIA MOTAK:** Denetarik



Oin eta harrizko HIZTEGIA

Segidan eskaladaren munduan erabiltzen diren hitz tekniko batzuen inguruan jardungo dugu. Eskaladan hastekotan bazabiltza, katu-hankak oinetan jantzi aurretik lerro hauek irakurri arretaz. Bukaeran, espezialista bihurtuta amaituko duzu, ziur baietz!

◆ KATU-HANKAK:

Eskalatzeko erabiltzen den oinetakoa. Hankara ondo egokituak, arinak eta oso itsaskorak dira. Katu-hankarik gabeko eskalatzailea hankarik gabeko katuaren parekoa da. Beharrezkoak dira boulder egiteko ere bai!

◆ BOULDER:

“Baxurako eskalada” deituko genuke. Batere sokarik gabe egiten dena da, horizontalean trabesiak eginez edo. “Freeky”en hatzaparrak eta gorputz gihartsuak berotzeko primerakoa!

◆ “FREEKY”:

Izan ala ez izan, hortxe dago gakoa. Eskalatzaile espezie zabaldua da gure artean. Laster antzemango diozu, punta-puntako katu-hankak, maila koloreztatuak eta moda-modako magnesio poltsa fosforitoa. Ah! eta hori bai, tirantedun elastikoa eta biceps beltzaranak beti bistan. Biarik gogorrenera iristeko dagoen bide luzeaz keaxatzen da beti, eta tabako errubioaren zale amorratua da. Hori bai, magnesioa beti kiloka!

◆ MAGNESIOA:

Magnesiorik gabeko “freeky”a, zaldirik gabeko bakeroa da. Magnesio poltsan txasta-txasta egin eta eskue-tan geratzen den hauts zuria da, eskuek haitza igurtzitzean labain egin ez dezaten. Halere, sartu-ateratze hori erritual bihurtu da. Eskuak lehor mantenduz gero, bueloa edo jauzia gerta-tzeko arrisku txikiagoa duzu.

◆ BUELOA/JAUZIA:

Horman gora zoazela ezustean erortzea litzateke. Zauden lekutik sokak eusten zaituen arte pasatzen den segundu erdia ez da gozoa, benetan! Une horietan adrenalina erruz martxan jarriko zaizu gorputzean zehar eta bihotzak “taup-taup” hitzegingo

A zer koktela!

Mendiak kirola egiteko eta abenturarako aukera zabalak eskaintzen digu. Mendiak, kirola, abentura... koktel polita! Koktel horren barruan mundu ezberdinak daude eta horietakoa da eskalada. Era berean, eskaladak berak ere jardura ezberdinak burutzeko aukera ematen digu:

- Eskalada libre:

Gizakiak bere indarrez horman gora igotzeko duen abilezia aprobe-txatzen da batipat. Bi estilo daude:

ESKALADA DEPORTIBOA: Rokodromoan eta eskalada-eskoletan burutzen da eta zailtasunak du primizia, gizakiaren mugak gainditzeraino. Aseguru puntuak onak dira eta jarrita daude.

MENDIKO ESKALADA: Mendira aplikatutako eskalada da. Bidea aurrez irekita dago baina sarritan aseguruak eskalatzaileak berak jarri behar ditu. Eskalada bide luzeak izaten dira, gehienetan tontorreraino doazenak. Mendi aproposak: Middi D’Ousse-au, Tozal del Mallo, Naranjo de Bulnes...

Zailtasuna: 1etik 8raino doa, errazenetik zailenera, tarteko graduazioekin. Adb: 6a, 6a+, 6b, 6b+, 6c, 6c+, 7a...

- Eskalada artifiziala: Ez dago haitzarekin kontaktu zuzenik eta asegurutik aseguru estriboen bidez igotzen da. Teknika bitxia eta gogorra da. Zailtasuna: A1etik A5eraino, errazenetik zailenera.

- Izotzean eskalada: Pioletak eta kranpoiak izotzetan sartuz mendi-tarteak eta izotz-jauziak eskalatzeko datza.

Bestelako osagaiak ere, kontuan hartzen baditugu (elurra, haizea, ekai-



BITXIKERIAK

Eskalatzaileak aparteko arraza osatzen dutela esan ohi da. Ez dakigu hala izango den ala ez, baina biak irekitzen eta hauei izen originalak jartzen apartekoak direla dudarik ez dago, jarraian izendatu ditugun bien izenei begiradaxo bat emanaz ikus daitekeenez. Zerrenda nahi adina luza badaitete ere, hona hemen zenbait izen benetan bitxiak: “El silencio de los porreros”, “K.K. de Luxe”, “Kanterarik ez!”, “Gravedad ten piedad”, “Callo de Zipayo”, “Paixa militarrik”, “Anastasia que extasia”, “Abel mató a Caín”, “Marino Lejarreta se la sube en bicicleta”, “Meadinha”, “Tendinitis en el nabo”, “Musquillo en el sobaquillo”, “Roca morfo-sis”, “Monjas tetas flojas”, “Intsumisioa”, “Buztancantropus erectus”, “Cocaina flash”, “Ezina ekinaz egina”,...

tza...) bizipenak ez dira oso “light”ak izango, ziur aski. Hori bai, arriskuak beti ondo neurtzea komeni da, koktelak mozkorkeriara eraman ez gaitzan. Nork bere gustuak aztertu, froga egin eta aukera dezala. Kirolen arteko konbinazioak ere kontuan izan: mendiko eskia-eskalada, eskalada-parapentea,... Izan ere, aukera oso zabala da eta mugak bakarra: nor bere buruarekiko.

ABEL IRIZAR

ESKALADA

neure bizitza

Neure bizitza pertsonala, pareteko eskaladari, bai eskalada deportiboari bai eta txapelketen munduarekin ere estuki lotua dago. Hara hona neure esperientziatxoa:

1981eko udaberria. Eskolako patioan futboleari ari nintzela, Aralarra irteeretan hainbestetan lagun izan nuen Oscar Aizpuruk (Alegriaraino trenez, Amezketara stopetan, Txindokira igo eta igande berean etxera itzultzen gineneko irteerak ziren haiek) zera esan zidan: hurrengo asterako alpinismo ikastaro bat zegoela zioen kartela ikusi zuela. Nik, neure aldetik, erabilerari buruz zertxobait ikastea ondo zegoela, baina eskalada arriskutsua iruditzen zitzaidala eta ez zela gehigekeriaren erortzea komeni erantzun nion.

1982ko udaberria. Eskolordua agortu eta gero, egunero, Hernanirako autobusean Santa Barbarara ihesaldietan hasi nintzen, eskala-tzera. Beti zegoen norbait, Poto, Juancar edo edozein, mosketoiak uzteko prest. Urte bukaeran, gerrian korapilo bat eginda, arnesik gabe, eta zapatilak oinetan, "libre" bat eskalatu nuen: hasteko, "La malestar", 6a gogor xamar bat.

1983ko udaberria: Terradets-era (Lerida) ihesaldian eskala zitekeen guztia eskalatzeari ekin nion. Zenbait mito hausten dira: koloreak, distirak... 7a ezagutu nuen. Lehendabiziko 7a+eko eta 7bko biak ireki nituen Euskadin. Santa Barbaran 7b eta 7b+eko biak ere eskalatu nituen. Zoroari begiratzen zaion bezala begiratzen ninduen jendeak.

1986ko udaberria. 8. gradua eskalatu nuen estraineko Euskadin. Agian Espainiako lehena ere izan nintzen. Haitzetako txapelketak jaio ziren. Madrilera joan eta bigarren izan nintzen. Gimnasia joateari ekin nion...

1991eko udazkena. Munduko 16 eskalatzaille onenekin batera Arco Di Trentora gonbi-

datu ninduten. Azkenetarikoetatik azkena nintzen, inortxok ez zuen nigandik ezer espero. Bigarren geratu nin-tzen, munduko txapelketarik garrantzitsuena irabazteko 10 zm eskasera.

1992ko abuztua. Eskalada erakustaldia Elgoibarren. Beatrizek, Gotzonek eta hirurok, frontoetik gertu eraikitako horma horiek zertarako diren ederki ondo zekien ikusleen begien aurrean, ariketa ikusgarriak burutu genituen.

1993ko ekaina. Morkaiko Mendizale Elkarte "ero" talde batek, Pako Iriondo "gazte" eta "kemen-tsu" batek bultzatuta, hiru kataluiniar eta donostiar bat kontratatu zituzten, horma horietan dantza-eskalada saioa burutzeko, Euskadiko Txapelketaren ostean. Ikusleak zur eta lur geratu ziren, eta guri lauroi, oroi pen gogoangarri eder bat eta adiskide mordo bat geratu zitzaizkigun Elgoibarren.

1995eko ekaina. Benetan gogoz, Elgoibarren izango den Euskadiko Txapelketaren zain gaude. Nik neure aldetik, den-dena orain arte bezain ongi burutu dadin espero dut.

PATXI AROZENA



dizu. Horrek "bizirik bizi" zarela esan nahi du. Eutsi goiari!

◆ "MOTORRA":

Adrenalinarekin zerikusia duen fenomeno dardartia duzu honakoa, tentsio egoeratan sortzen dena. Paretean posizio deserosoan zaudenean hanka "dar-dar-dar" hasiko zaizu eta lagunak "zer, motorra?" galdetuko dizu ironiaz. Lehendabiziko erremedioa posizio hobea hartzea da eta, ahal bada, onena azkar "txapatzea". Orduan bai zerua!

◆ "TXAPATZEA":

Bia irekitzen duenak seguruak (express zintak) jartzen ditu paretan bata bestearen atzetik. Expressa jarri eta gero soka mosketoitik pasatzean, txapatu egin duzu. Txapatuz gero salbu zaude eta horregatik da eskalada hain segurua (eta osasuntsua!). Txapatuz eta txapatuz erreuniora helduko zara.

◆ ERREUNIOA:

Eskalada bidean zehar 40-50 metroko luzeak edo laragoak egiten dira. Luze bakoitzaren ondoren, sokaldiko 2 edo 3 kideak erreunioan elkartzen dira eta berriro hurrengo luzea egiteko prest daude. Arnasa bueltatzeko eta elkarrizketarako leku aproposa da, elkarri luze bakoitzeko gazi-goak kontatu, besoak lasaitu etab. Pixaleku modura ere erabili izan dira, lasaitu ederrak hartuz!

Azken erreunioan bazaude, eskalada bidea bukatu da eta erronka zeureganatu duzu. Ez haiz makala! Orain rappelatu egin behar duzu. Lurrera hel-tzean, badakizu, soka bildu eta beste biaren baten zirrikituak miatzeko prest zaude. Animo eta on dagi-zula!

◆ AHOLKU BAT:

Segurtasunari dagokionez, nor bere mailan ibiltzea komeni da beti eta beharrezkoa den materialeak eskura izatea: expressak, fisureroak, "friends"ak (lagun bikainak dira!), kordino eta bagak, iltzeak... Ah!, eta mendian, badakizu, argi ibili eta KASKOA ERABILI!

ABEL IRIZAR

YOSEMITE

eskalatzaileen ametsretako mendia

Pablo Barrenetxea eta Aitor Esnaola gazteek erronka berri bati helduko diote datorren abuztuaren 11n hasita. Elgoibartar bikote honek Kaliforniara joan eta bertan, Yosemite mendia eskalatzeko asmoa du. Eskalada artifiziala egingo dute. Baliabide artifizialak erabilia igoko dira horman gora, 1.000 metroko altuera duen horma bertikalean.

- Yosemite mendia igotzeko asmoa dakagu, eskalatzeko asmoa. Egin behar dugun eskalada big-wall deitzen da. Eskalada artifiziala da eta lo ere paretian bertan egingo dogu.

- Zenbat denbora beharko duzue gailurrera heltzeko?

- 1.000 metroko horma bertikala da eta segun eta zein biatik igotzen zeran denbora gehixao edo gutxio behar dozu. Guk bia desberdinak itxeko asmua dakagu, bia batekin hiru egun tardatuko dogu, gutxi gora-behera, eta gero egun bateko biak ere eitxeko asmua dakagu. Guztira hilabete egon bihar gera han.

- Zein zailtasun dago?

- Eskalada artifizialean A1etik A5erako biak daude, erretzetik zailenera. Guk A3 bia egin bihar dogu, Yosemite mendian jende gehixenak itxen dabana da, zailtasun aldetik erdi mailako bia bat da.

- Zeri deitzen zaio eskalada artifiziala?

- Normalian, eskalada librian eskuak erabiltzen dia ixotzeko eta artifizilian eskuekin ez da haitzik heltzen. Eskailera bezela estribo batzuk erabiltzen dira, iltziak sartu haitzian, han engan-txau estribua eta handik ixotzen zera poliki-poliki, estribo baten ostian beste bat ipiniaz.

- Zergatik Yosemite?

- Yosemite eskalatzeko mendi mitiko bat da eta beti dakazu gogua igotzeko eta urte honetan preparatu egin gera juteko. Artifizialian ibili gera gehixen eta elurrian ezer ere ez.

- Eguraldiak ba al du eraginik?

- Han bero haundixa itxen dau eta dauan arriskurik haundixenatarikua desidrataziua da. Ur asko eraman bihar dogu petate batian, igual eguneko bakoitzantzat lau litro.

- Zenbat pisu igo behar duzue?


- Bixon artian 50 kilo inguru, ura, bazkarixa, dana hotza, zakuak, hamakak, txatarra guztia...

- Non ibili zarete preparamen?

- Hemen inguruan ez dago paretik artifizialian eskalatzeko, batez ere Kataluniara jun gera.

- Artifiziala zailagoa al da?

- Zailaua baino sikologikuaua. Eskalada libria itxeko fisikua ondo preparatuta euki bihar dozu, eskuekin zabiz denbora guztian haitza heltzen eta. Artifiziala eitxe-



▲ Goian, "El Capitán" horma mitikoa. Lerro hauen gaienean Pablo Barrenetxea eta Aitor Esnaola.

rakuan tensio haundixan zaude denbora guztian, aber estribuak ondo engantxatuta clauden... Sikologikuaua da eskalada artifiziala.

- Zenbat denbora eman duzue dena prestatzen?

- Urte haseratik, abenduan edo pentsatu gendun eta denbora tarte honetan ibili gera entrenatzen.

- Eta diru aldetik?

- Ahorruek eta sakrifizio asko.

- Mendian ibili zarete asko, eskalatu egiten duzue...

- Oin momentuan nahi-xao dogu eskalatzia, alpinua itxera baguaz ere paretan

baten sartzia intentatzen dogu. Askoz gehixao kostatuko jakun seguramente oin mo-txiliakin mendixan gora ibil-tzia.

- Zergatik saiatzen zarete beti bia zailenak igotzen?

- Bia zailenak itxiak esatia nahi du progresiua zailaua dala, arrisku gehixao dauala. Halere limitean ibiltzea gus-tatzen jaku, norberan limitia superatzen. Beti ere saiatzen zera gauza berrixak itxen eta A2 bat egin eta gero A3 bat intentatzia nahi izaten dozu, beti argi eukitxa preparazio ona dakazula.




IRIONDO KIROLAK



AUKERA ZABALA
Mendi, eskalada eta
kirol guztietarako
 ekipamenduan
MARKARIK ONENAK

GAZTE TXARTELAREKIN
%10eko beherapena
FEDERATUOK
% 10 beherapena

San Frantzisko, 37 / ELGOIBAR / Tel.74 09 56 /Erakusketa: San Frantzisko, 54



*Gogokoan duzun
kirola
praktikatzeko
behar duzun
guztia daukagu.*

**% 15eko
BEHERAPENA
MENDIKO
MATERIALEAN
FEDERATUEI**

P. Irizar, 1. BERGARA. Tel. 76 14 95



MORKAIKO

MENDIZALE ELKARTEA

FINALISTA EGUNA

ekainaren 25ean

8,30etan Udal Txistulari Bandaren KALEJIRA

9,30etan MORKAIKOra irteera Plaza Handitik



12,30etan MEZA San Pedroko Elizan

13,15etan DOMINA BANAKETA

Ondoren HARITZ Dantzari Taldearen saioa

14,30etan BAZKARI herrikoia

Arratsaldean JOLASAK eta SORPRESATXO BAT



EUSKADIKO ESKALADA TXAPELKETAko KAMISETAk SALGAI

Morkaiko M.E.an. Prezioa: 1.000 pta.